

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Dirulaguntza deialdia euskara txertatzeko Laudioko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioetan. 2021. urtea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrean, 2021eko otsailaren 19an izandako ohiko batzarrean, onartu zen Laudioko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetako errotulazioan euskararen agerpena sustatzeko dirulaguntza deialdia.

Hartutako erabakiaren hirugarren atalean jasotakoari jarraiki eta indarreko legerian xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu daitezzen.

Laudio, 2021eko martxoaren 2a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE

DEIALDIA

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduei eta zerbitzu-enpresa txikiei dirulaguntzak ematea norgehiagoka-erregimenean, euskara beren negozioen errotulazio-lanetan sar dadin sustatzeko.

Bigarrena. Erabakitzeko erregimena eta oinarri arautzaileak

Laguntzak ematean norgehiagokako erregimenean egingo da.

Edonola ere, prozedura irekia den arren, ez da zorrozki aplikatuko norgehiagoka-prozedura, aplikazioaren zenbateko osoa agortu arte onartuko baitira eskaerak. Baldintza horrek bete egiten du uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, Dirulaguntzen Arautegi Orokorra oneste-koaren 55. artikulua 1. idatzi-zatia. Artikulu horrekin bat, oinarrietan egin daiteke baldintza guztiak betetzen dituzten eskaera aurkeztuen hurrenkera errespetatzeko salbuespena kreditua nahikoa ez den kasuetarako, betiere, aurkezteko epea agortzean dagoen eskatzaile kopuruari erreparatuta

Laguntza horiek onartzeko edo ukatzeko erabakia arrazoitua izango da beti. Bere onarpe-nerako, kontuan hartuko dira deialdi bera eta Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (ALHAO, 146. zk., 2009ko abenduaren 21ekoa).

Hirugarrena. Onuradunak

Dirulaguntza honen onuradunak izan daitezke Laudio udalerrian egoitza edo ordezkaritza duten merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikientzako udalaren euskara planean partaide badira. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahal izango dira deialdi honen onuradunak, betiere, oinarri arautzaileetan azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte. Batik bat, hauek dira:

a) Dirulaguntza hauek emango dira baldin eta soilik errotulatuko den testua, euskaraz agertzen bada (euskaraz baino ez edo bestelako hizkuntza batzuekin batera) eta testua erakusteko euskarria establezimendua identifikatzeko kanpoko errotulu nagusia edo toldoa edo ibilgailua bada. Bestalde, deialdiko laugarren atalean jasotako eskakizun teknikoak beteko dira, oinarrietan ere daudenak.

b) Audio Udalak emandako datuak egiaztatze egin litzakeen azterketak onartzeko prest egotea, baita egiaztatze edo finantza kontrolerako eskumena duten organo nazionalek edo Europako Erkidegokoek eskatzen dutenean ere. Kasu guztietan dirulaguntza eskatzailea prest egongo da eska lekiokkeen informazio guztia emateko.

c) Egiaztatuko da dirulaguntza eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin.

d) Egiaztatuko da dirulaguntza eskatzaileak ez duela zorrik Audio Udalarekin.

e) Beste dirulaguntzarik lortuz gero, jasotakoa egiaztatzen duten agiri guztiak gordetzea, baita elektronikoa ere, balizko egiaztatze eta kontrol jardueretarako.

f) Eskabidean eta emandako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak izatea. Dokumentazioan edozelako faltsukeriarik aurkituko balitz, dirulaguntzaren galera zuzena ekarriko luke.

Errotulazio komertzialetan euskara txertatzeko emango diren laguntzak, dirulaguntza kontzeptu gisa emango dira eta, ondorioz, berezko ezaugarri guztiak hartuko dituzte tramitatzerakoan. Hortaz, Araba Lurralde Historikoan Dirulaguntzen eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Diputazioaren Arauari, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari, Udalen Zerbitzuen Araudiari eta bestelako lege osagarriei lotuko dira, hala nola dirulaguntzen udal ordenantza arautzaileari.

Pertsona batek ezin izango luke deialdi honen onuradun izan eskatzailea Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Audio Udaleko Dirulaguntzen udal Ordenantza Arautzailean laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego.

Laugarrena. Erabakitze balorazio-irizpideak eta balioespenak

Dirulaguntza hauen ezaugarriak direla medio, ez dago laguntza hauek balioesteko irizpideak ezartzerik.

Bosgarrena. Laguntzak lortzeko betekizunak

Laguntzak emateko orduan aintzat hartu beharko dira ondoko puntu hauek:

a) Dirulaguntzak emango dira ondoren adierazten diren euskarrietan agertzen diren hizkuntza txertapenetarako:

– establezimendua identifikatzeko kanpoko errotulu orokor nagusia, betiere jardueraz edo eta onuradunaren berezko zereginenez informazioa ematekoa baldin bada. Errotulu nagusia bat bakarra da.

– toldo-errotulazioa, onuradunaren jardueraz edo erakunde berari buruzko informazioa ematen duen kasuetan soilik. Ez dira lagunduko bertan ager litezkeen gainerako publizitate-osagarriak.

– ibilgailu industrialen errotulazioa, onuradunaren jardueraz edo erakunde berari buruzko informazioa ematen duen kasuetan soilik. Ez dira lagunduko bertan ager litezkeen gainerako publizitate-osagarriak.

– informazio komertzialeko xafren errotulazioa, betiere atarien edo sarbideen kanpoaldean badaude, herri bideetatik ikusgai eta eskaintzen den zerbitzuaren informazioa ematen dutenak, atari, telefonoa eta antzekoetatik harago.

b) Aurreko eskakizunak betetzen baldin badira eta errotulua euskaraz baino ez badago, kostuaren zerga-oinarriaren ehuneko 70 lagunduko da, eta oinarri berori izango da gastu lagungarria.

Euskaraz gain beste hizkuntza batez balego errotulua, kostuaren zerga-oinarriaren ehuneko 35 lagunduko da, eta oinarri berori izango da gastu lagungarria.

Euskara ez den beste hizkuntza bat dagoen kasuetan, euskarak berdintasun edo lehentasuneko tratua izango du beste hizkuntzarekiko dirulaguntzaren onuradun izan ahal izateko. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Irakurketaren ibilbideari jarraiki, euskara erdara baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testua goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, erdarazkoaren ezkerrean.

2 Erabiliko diren grafien edota testuen tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko bertsioa izango da tamaina handienekoa.

3. Badira kontuan hartu behar diren hierarkia tipografiko batzuk: ondoren adierazten dira, garrantziaren arabera hurrenkeraz. Edozein kasutan ere, ezberdintasunik balego, euskarazko testuak erdarazkoak baino eskala altuagoa hartuko du errotulazio lanetan:

- LETRA LARRIA > Letra xehea.
- Azpimarratua > Ez-azpimarratua.
- Letra beltza > Arrunta.
- Arrunta > Etzana.

(balio gehiago > balio gutxiago).

4. Sarri, elementu batzuk ager daitezke, ezer berezirik ekarri gabe, hizkuntza bat bazterten dutenak eta, beraz, saihestu behar direnak. Gainera, nazioarteko administrazio-hizkuntzaren gomendio orokorrekin bat dator. Hauetako bat, helbideak idaztekoa da: Egokiagoa da "Goikogane, 25" helbidea idaztea "K/ Goikogane, 25 zk" edo "Goikogane kalea, 25 zk" baino.

5. Hizkuntza bakoitzeko testuak bereizirik agertu behar izatekotan euskarazko testuak erdarazkoak duen helgarritasun bera edo gehiago izango du.

c) Oinarri honetako a) eta b) atalak errotulazio-lan bakoitzari aplikatuko zaio, hau da, errotulu nagusi, toldo edo ibilgailu bat baino gehiago behar izanez gero, dirulaguntzak biderkatuko lirarteke.

d) Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso establezimenduaren izen berezi soila edo abizena edo izen-abizenetan edo toponimo bat edo antzekoetan soilik oinarritutako errotulazioa bada. Bestela esanda, izenaren osagarri generikoa (harategia, okindegia, jatetxea...) da laguntza deialdi honen bitartez lehenetsi nahi dena.

e) Ez dira lagunduko txarto idatzita edo oker gramatikalak dituzten lanak. Horretarako, eskatzaileak beti izango du baliagarri Udalaren Hizkuntza Normalizaziorako zerbitzu-atalaren aholkularitza eta laguntza.

f) Diruz lagundu beharreko lanek 2020ko azaroaren 7tik 2021eko azaroaren 5era bitartean fakturatuta egon beharko dute.

Seigarrena. Epeak eta eskabideak aurkezteko moduak

6.1 Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2021eko azaroaren 5ean amaitu.

6.2 Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak Laudioko udaletxeko Idazkaritza Nagusian (Herriko plaza, z/g 01400 Laudio) aurkeztu beharko dira edo, baita ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehazten den moduetan.

6.3 Dokumentazioa.

Dokumentazio hau ekarri beharko da nahitaez:

1. Eskabide-inprimaki normalizatua, datu guztiak beteta.
2. Eskatzailea pertsona juridikoa denean (saltokia, enpresa...) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia. Eskatzailea pertsona fisikoa denean, NANaren kopia.
3. Eskatzailea pertsona juridikoa denean (saltokia, enpresa...) ordeztzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta ordezkatzeko hori baimentzen duen agiri bat (erabakia, eskriturak...).
4. Lanaren faktura eta faktura hori ordainduta egotearen agiria.
5. Zinpeko aitorten bat adierazteko eskatzailea ez dagoela laguntzak eskuratzeko lege ezindua.
6. Zinpeko aitorten bat adierazteko errotulazio lan berbera egiteko eskatutako beste dirulaguntza batzuk eta, hala balegokio, eskuratutako laguntzaren zenbatekoa.
7. Arabako Foru Aldundian eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean zorrik ez izatearen egiaztagiria (udalaren esku utz daiteke zeregin hau).
8. Zinpeko aitorten bat adieraziz zein diren errotulazio lan horretarako gainerako erakunde publiko edo pribatuei eskatutako dirulaguntzak. Eskaera horiek erabakitzeke baleude, erabakia hartu eta berehala jakinarazi beharko zaio udalari.
9. Zinpeko aitorten bat adieraziz eskatzailea ez dagoela Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13 artikuluen 2. eta 3. atalen aplikazioaz laguntza publikoak eskuratzeko lege ezinduta.

Administrazioak bere esku dituen beste agiriak ez dira aurkeztu beharko, betiere eskatutako prozeduraren amaiera epetik bost urte igaro ez direnean eta dokumentazioa aurkeztu zeneko data eta erakundea zehazten denean, Dirulaguntzen Lege Orokorren 23. artikulua zehazten duenari jarraituta. Iraungipen data duten dokumentuak (zerga ordainketetan egunean izatea, e.a.) aurreikuspen honetatik kanpo geratzen dira.

Zazpigarrena. Azterketa, erabakia eta eskumeneko organoak

Heldutako eskaera guztiak aldi berean aztertuko dira Udaleko Hizkuntza Normalizatorako zerbitzu-atalean.

Zerbitzu-ataleko buruak ziurtagiri bat jaulkiko du egindako errotulazio bakoitzeko, eskatutakoak bete direla bermatzeko.

Behin guztiak aztertuta, Zerbitzu-ataleko buruak txosten bat idatziko du, heldutako eskaerak edo burututako errotulazioak eta euren balorazioak jasoz.

Balorazio horiek Balorazio Epaimahai batera igorriko dira, azter ditzaten. Kultura Garapen Arloko gaien Informazio Batzordeko kideek eta Hizkuntza Normalizazioa eta Identitatea zerbitzuko buruak osatuko dute Epaimahaia, eta azken horrek idazkari lanak egingo ditu.

Espedientea kontuan hartuz eta Balorazio Organoaren txostenean jasotakoa batuz, alkatere-udalburuak behin betiko proposamena egingo du. Proposamen horretan haxe zehaztu beharko da:

- Dirulaguntza lortu ahal izateko zenbatek egin duten eskaera.

- Dirulaguntzaren zenbateko zehatza eta zertan oinarriturik ematen den.
- Dirulaguntza emateko zein arrazoi izan diren eta jarraitu diren irizpideak.

Laudioko Udalak, hala baderitzo, aurkeztutako dokumentazioari buruzko datuak edo argibideak eska ditzake. Eskatutako hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan aurkezten ez bada, espedientea atzera daiteke edo, areago, artxibapena eragin dezake, eskaera bertan behera utziz.

Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, ebazpenean laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta baldintzak jasoko dira. Kontrakoa balitz, erabaki hori hartzeko arrazoiak.

Erabakia, gehienez ere, eskaerak aurkezteko epea ixten denetik hiru hileko epearen barruan hartuko da.

Kasua edozein izanda ere, hartutako erabakiaren kontra egin ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan.

Eskatzaileek egindako erabakiaren aurkako inpugnazioak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu.

Zortzigarrena. Laguntzak ematea

Dirulaguntzak erabakitzeko orduan errotulazio lanak (errotulu nagusiak, toldoak, ibilgailuak eta atarrietako kanpoko xaflak) eragindako gastuaren zerga oinarria hartuko da kontuan eta haren ehuneko 70 edo 35 emango da, hurrenez hurren, euskara hutsez edo ele biz egin bada errotulazio lana, oinarria arautzaileen aplikazioaz eta deialdi honen 4. atalean jasotakoa betez.

Onartutako laguntzaren zenbatekoak ezingo du 350 eurotik gorakoa izan elementu bakoitzeko.

Aurrekontuan kontsignazio nahikorik balego eskaera guztiei aurre egiteko, gastu lagungarriaren ehuneko 70 edo 35 ordainduko da. Ez balego, hainbanaketa egingo da kontsignazioarekin doitu arte.

Kopuru horien onarpena deialdian diru nahikoa aurreikusita egotearen baldintzapean egongo da.

Bederatzigarrena. Jakinarazpena eta ordaintzeko era

Behin Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartuta, horren berri jakinaraziko zaie eskaera egin duten guztiei, gehienez ere, hamar eguneko epearen barruan.

Ordainketa, eskatzaileak horretarako emandako banku-kontuan ordainduko da.

Dirulaguntza onestek ibilbide administratiboaren amaiera dakar.

Indarreko deialdiaren eta haren bitartez eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitakoari jarraikiz.

Hamargarrena. Kopurua

Dirulaguntza guztien batuketak, gehienez ere, 2.000,00 eurokoa izango da, hau baita deialdi honetarako aurreikusitakoa.

Deialdi honen gastua Laudio Udalaren indarreko Aurrekontuaren 0900-3351-48103 ("Merkataritzarako dirulaguntzak") aurrekontu-aplikazioaren karguan egingo da.